

EUSKOPAIL 2008

VII CAMPEONATO FILATELICO DE EUSKALHERRIA EUSKAL HERRIKO VII. FILATELIA TXAPELKETA



MERCEDES CAREAGA 1908-1997
EIBAR



BATZORDE ANTOLATZAILEA COMISIÓN ORGANIZADORA

PRESIDENTE / PRESIDENTEA:

Fidel Saéz Aguinaga

SECRETARIO / IDAZKARIA:

Juan Gómez Barranco

TESORERO / DIRUZAINA:

Alberto Elizondo Retolaza

RELACIONES PÚBLICAS / HARREMAN ARDURADUNA:

Diego Aguilar Verdejo

MONTAJE / MONTAJEA:

Isidro Rejo Lorenzo

Luis M^a Domínguez Gallo

EPAI-MAHAIK JURADO

José Angel López Fernandez-Velilla

Donostia

Jose M^a Ortuondo Menchaca

Bilbo

Juan Gómez Barranco

Eibar

Juan Manuel Cerrato García

Gasteiz

Begoña Imaz Ortíz

Gasteiz

Fidel Sáez Aguinaga

Eibar

EPAI-MAIAK IKASLEAK JURADOS APRENDICES

Diego Aguilar Verdejo

Eibar

Isidro Rejo Lorenzo

Eibar



EUSKOPHIL 2008

VII CAMPEONATO FILATELICO DE EUSKALHERRIA
EUSKAL HERRIKO VII. FILATELIA TXAPELKETA

FILTELIA ERAKUSKETA
EXPOSICION FILATELICA



ASOCIACION FILATELICA ARRATE
ARRATE FILATELIDJ ELKARTEA

Apartado, 33
20600 **EIBAR** (Gipuzkoa)

XXXIX EXFIBAR 2008

Eibar
Azaroaren 23tik 29ra
Del 23 al 29 de noviembre
2008

2008ko azaroaren 23tik 29ra

Ordutegia:

Astelehenetik ostiralera 18-20 h.

Larunbat, igande eta jai egunetan 12-14H., 18-20 H.

Del 23 al 29 de noviembre de 2008

Horario:

De lunes a viernes: 18-20 h.

Sábados, domingos y festivos: 12-14h, 18-20 h.



JATORRRIZKOA MATASELLO ORIGINAL DE

José Ángel López

Horarios del matasello

Día 23: 12-14 h., 18-20 h.

Día 24: 18-20 h.

MERCEDES CAREAGA GUIASOLA (1908-1997)

Mercedes Careaga nació en Eibar el 15 de diciembre de 1908; hija del gran grabador eibarrés Cayetano Careaga y Emilia Guisasola (Organistaneko Emilia). Mujer adelantada a su tiempo, con grandes dotes de organización, luchadora, realizó una gran labor en favor de los más necesitados y de las mujeres desde muy temprana edad. De niña estudió en las escuelas de la Alhóndiga teniendo como maestras a profesoras que dejaron una gran impronta en la época (Doña Polonia Etxeberria, Doña Paca...).



A los catorce años ingresa en el colegio de las Monjas de la Providencia de Aldatze -dirigido en aquellos años por la Madre Loyola- donde cursa estudios de Magisterio, estudios que no concluyó. Su gran vocación religiosa le llevó con 16 años a ser catequista, labor que no

Mercedes Careaga Eibarren jaio zen 1908ko abenduaren 15ean; Cayetano Careaga grabatzaile handia eta Emilia Guisasola (Organistaneko Emilia) ziren gurasoak. Emakume aurreratua, antolaketarako dohain handikoa eta kementsua, gazte gaztetatik hasi zen lanean behartsuenen eta emakumeen alde. Alhondiga zaharreko eskolan hasi zen ikasten; saioi hartan herrian eragin handia zuten maistrak izan zituen irakasle: Polonia Etxeberria, Doña Paca...



Hamalau urte zituela Aldatzeko mojen ikastetxean sartu zen; urte haietan Ama Loyola zen zuzendaria eta Magisteritza ikasketak egiten hasi zen baina ez zuen bukatzerik izan. Erligioarekiko grinak bultzatuta, 16 urterekin katekista izan zen; ez zuen utzi 1936. urtera arte, gizarte gaiak eta hezkuntza ardatz zituela.

abandonó hasta el año 1936, impregnada de una gran visión educativa y social.



La preocupación por los derechos de la mujer era una de sus señas de identidad. Afiliada al PNV, Mercedes trabajó activamente en Emakume Abertzale Batza, fue una de las impulsoras de la agrupación local de EAB de Eibar que se creó el 9 de enero de 1931 y ocupó diferentes cargos en la misma... A lo largo de los años 1931 y 1932, en compañía de José Antonio Aguirre, Monzón, Manuel de Irujo y otros dirigentes del partido, participó en más de 20 mítines a lo largo y ancho del país (Deba, Eibar, Vitoria, Leiza, Izaba...) reivindicando siempre el papel de la mujer en la sociedad. También participó en algún ciclo de conferencias como ponente y escribió artículos bajo el seudónimo de "Kareagatar Eskarne" en "Argia", "Euzkadi", "El Día"... Siem-

Bere ezaugarri nagusienetako bat, emakumeen eskubideen aldeko lana eta ardura izan zen. EAJen alderdikide, Mercedesek gogor egin zuen lana Emakume Abertzale Batzan; 1931ko urtarrilaren 9an sortu zen Eibarko EABren bultzatzaileetako bat izan zen, eta alderdi barruan hainbat kargu bete zituen. 1931n eta 1932an, Jose Antonio Agirre, Monzon, Manuel Irujore eta beste hainbat burukiderekin, 20 mitinetik gora eman zituen Euskal Herrian zehar (Deba, Eibar, Gasteiz, Leitza, Izaba...); beti azpimarratzen zuen emakumeak gizartean bete behar zuen lekua. Hitzaldi-sorta batzuetan ere hartu zuen parte hizlari gisa, beti emakumearen egoera hipzide zuela; "Kareagatar Eskarne" gaitzizena erabilita hainbat artikulua idatzi zituen "Argia", "Euzkadi" eta "El Día" aldizkarietan. Politikagintza 1933. urtean utzi zuen.



pre sobre el tema de la mujer. Por razones que se desconocen dejó la política en el año 1933.

La guerra civil del 36 le obligó a esconderse con su familia a Bilbao; de allí partieron a Asturias, donde Mateo, hermano de Mercedes -concejal del Ayuntamiento de Eibar- se dedicaba a grabar las monedas del Consejo de Asturias en Avilés. Al en-

Gerratean bere familiarekin batera Bilbon ezkutatu zen; handik Asturiaserako bidea hartu zuten; han, Mateok -Mercedesen anaia, Eibarko udaleko zinegotzia- Asturiaseko Kontseiluaren diru-txanponak grabatzen zituen. Nazionalak Asturiasen sartu zirenean, Mercedesek Frantziara ihes egin nahi izan zuen itsasontziz, baina portuak blokeatzen eta Bilbo hartu ondoren Errepublikaren alde-



trar las tropas nacionales en tierras asturianas Mercedes intentó huir a Francia en barco, pero éste fue interceptado por el buque "Almirante Cervera", buque que inicialmente se dedicaba a las labores de bloqueo y que después de la toma de Bilbao, detenía a los buques de apoyo logístico al bando republicano. Mercedes regresa a Eibar, donde, a modo de castigo, le

koei laguntzen zebiltzan itsasontziak harrapatzen ibiltzen zen "Almirante Cervera" itsasontziak, beste askori bezala, Frantziarako bidea moztu zion Mercedesi. Eibarrera itzuli zen; gaztigu legez, eskolak garbitzen jarri zuten, eta aldian behin Poliziarengana joateko obligazioa zuen, harik eta -herriaren alde egiten zuen lanari esker- obligazio hori kendu zioten arte.

pusieron a limpiar escuelas; tenía la obligación de presentarse ante la Policía periódicamente hasta que, gracias a su labor social, fue eximida de dicha obligación.

El primer eslabón del activismo social de Mercedes Careaga tras la guerra fue la llamada "ayuda americana" proveniente del Plan Marshall, que por aquel entonces empezó a llegar a Eibar. Canalizó dicha ayuda y la hizo llegar a los necesi-



tados (leche en polvo, carne enlatada argentina...) en un momento en que Eibar estaba sufriendo una fuerte inmigración y una gran necesidad debido a la autarquía del Régimen. Como anécdota hay que mencionar que gracias a una lavadora instalada en los locales parroquiales se conseguía transformar grandes cantidades de leche en polvo en leche líquida para su distribución. Bajo la dirección de Mer-

Gerraostean Mercedes Careagak egin zuen lan itzelaren aurreneko kate maila, Marshall planetik zetorren "amerikanuen laguntza" izan zen, urte haietan Eibarrera iritsi zena. Laguntza hura bideratu eta be-



har zutenei eskura ipini zien (esne-hautsa, Argentinako okela enbasa-tua...). Une hartan, Eibarrera, erregimenaren autarkiaren ondorioz, kanpotik jende asko heldu zen eta premia handia zegoen alde guztietan. Askok dira Mercedesen inguruan kontatzen diren pasadizoak, baina jende gehienak herrian gogoratzen duena hauxe da: Parrokiako lokal-tan zegoen arropa-garbigailu bati esker, esne-hauts kilo mordoa edateko esne bihurtu eta banatu egin zuela. Mercedes Careagaren zuzendaritzapean, laguntza banatzeko izen zerrenda bat osatu zen. Haiek izan ziren Karitasen hasierak, oraindik sortzeke zegoena.

cedes Careaga se confeccionó un censo nominal para el reparto de ayudas. Eran los inicios de Cáritas aún sin crear.

En esa misma época, en 1943, a través de Acción Católica, comenzó a dar charlas de formación católica de contenido moral y humano para las jóvenes eibarresas: por un lado para las mayores de 18 años y por otra a las de 12 a 18 años. Ese proyecto duró 12 años y por sus clases pasaron más de 1.500 jóvenes. Ella las denominaba "lecciones".



Fue una gran impulsora de las famosas "tómbolas" eibarresas para asistencia benéfica y social. Tómbolas que se organizaban sorteando productos de talleres y fábricas de Eibar para la financiación de proyectos de carácter social y en las que colaboraba mucha gente. En un artículo publicado en 1974 en la

Saso hartan bertan, 1943. urtean, Acción Católicaren bitartez, erlijio-ari buruzko hitzaldiak ematen hasi zen Eibarko emakume gazteentzat: Alde batetik 18 urtetik gorako taldeak zeuden; bestetik 12tik 18 urte bitartekoena. Proiektu horrek 12 urte iraun zuen; eskola haiek hartzen 1.500 gazte baino gehiago ibili ziren. Berak "lezioak" zirela zioen; moralari eta gizatasunari buruzko lezioak.



Eibarko "tonbola" famatuak bultzatu zituen: herrian zeuden beharretarako egiten ziren tonbolak ziren. Jende askok laguntzen zuen tonbola haietan; Eibarko fabrika eta tailerretako produktuekin zozketak egin eta handik ateratzen zen dirua herrirako benetan onak ziren proiektuetan erabiltzen zen. 1974. urtean "Eibar" aldizkariak gai horren inguruan atera zuen artikulua batek hau xe dio: 1948az geroztik Eibarren 33

revista Eibar, se decía que desde 1948 habían sido organizadas 33 tómbolas con unos espectaculares resultados económicos que en la prensa de la época venían ampliamente especificados con su destino. Otra de las actividades impulsadas por Careaga fue la del "Día del Seminarista" cuyas aportaciones económicas servían para financiar los estudios a las futuras vocaciones.



EUSKAL HERRIKO VII. FILATELIA TXAPELKETA

EUSKOPHIL 2008

10

Sin embargo, las obras más destacadas de Mercedes Careaga fueron la creación de la Sociedad Goi Argi en el año 1951; el Patronato Eibarrés de beneficencia infantil y obras sociales, del que fue fundadora en el año 1964 y los Talleres protegidos Cayetano Careaga en 1973. Tres grandes proyectos en los que

tonbola antolatu zirela eta diru-emaitzak ikusgarriak izaten zirela. Orduko egunkarietan zehatz-mehatz azaltzen zen zenbat diru jasotzen zen eta dirua zertarako zen. Careagak bultzatutako beste ekintza bat "Seminaristen Eguna"rena izan zen; hortik ateratako dirua abade izan nahi zuten gazteen ikasketak ordaintzeko erabiltzen zen.

Hala ere, Mercedes Careagak egindako lan guztiaren hiru zutabe nagusiak hauexek izan ziren: bata, Goi Argi Elkartearen sorrera (1951n); 1964an berak sortu zuen Eibarko Ongintza Patronatua eta "Cayetano Careaga" tailer babestuak, 1973an sortutakoak. Hiru proiektu handi baina asmo bakarra: Karitate kon-

confluye una misma idea: preocupación vital y solidaridad real con los más desfavorecidos de la sociedad lejos de posturas caritativas.

Mercedes Careaga, Tere Gantxegi, Carmen Apellaniz, Felisa Loyola... Un grupo de mujeres dirigidas por Mercedes Careaga crearon en el año 1951 la Sociedad Femenina Eibarrera -Goi Argi- la primera sociedad para mujeres en España, inaugurada el 19 de marzo del citado año en la calle Dos de Mayo, una sociedad marcada desde sus inicios por su marcado carácter social y cristiano y dirigida a las mujeres en una línea de formación integral. Sus inicios fueron difíciles: el gobernador civil negó el permiso pero Careaga logró el apoyo del obispo Jaime Font y Andreu y el Alcalde de Eibar, Esteban Orbea, que fueron las personas que allanaron todos los trámites administrativos para su pues-

tzeptutik urrun, premia gehien zuen jendearekiko ardura eta kezka, behartsuenen aldeko lan etengabea.

Mercedes Careaga, Tere Gantxegi, Carmen Apellaniz, Felisa Loyola... Emakume talde batek, Careagaren gidaritzapean, 1951ean Goi Argi Elkartea sortu zuen, emakumeentzat bakarrik sortu zen lehenengo Elkartea Espainia osoan. Martxoaren 19an, San Jose egunean, inauguratu zuten



lokala, orduan Dos de Mayo deitzen zen kalean; hasiera hasieratik, gizar-tearen alde eta kristautasunean oinarrituta lan egiteko bidea hartu zuen, emakumeei prestakuntza eskaintzea. Hasierak ez ziren errazak izan: Gobernadore zibilak lokala zabaltzeko baimena ukatu zien; hala ere, Careagak, Jaime Font Andreu gotzainaren eta Esteban Orbea Eibarko alkatearen laguntza izan zuen, elkartea martxan jartzeko administrazio-tramite guztiak bideratu baitzituzten. Maria Angeles Zulaicak, Goi



ta en marcha. María Ángeles Zulai-
ca en un artículo que escribió sobre
la sociedad destacaba "la audacia
de aquel gesto que hay que juzgar
desde los condicionamientos de la
época". Sí, era una sociedad para
el entretenimiento y el esparci-
miento de la mujer, pero sobre
todo, era una sociedad para la for-
mación y la socialización de las mu-
jeres: cursos, conferencias, cla-
ses, cocina, colaboración con mul-
titud de obras sociales (Operación
"ladrillo" para la Residencia de an-
cianos, misiones, guardería...)



El Patronato Eibarrés de Benefi-
cencia surgió a raíz de la preocu-
pación que provocó un brote de po-
liomielitis en el año 1962 y las con-
secuencias de la enfermedad. Era
necesario un centro de Rehabilita-
ción. El alcalde, José Hernando,
creó la Junta del Patronato Eibarrés



Argiri buruz idatzi zuen artikulu ba-
tean, "keinu haren ausardia" na-
barmentzen zuen, "sasoi hartako
baldintzak nolakoak ziren ikusita, ain-
tzat hartu behar dena". Bai, hala-
xe zen, emakumeen denbora-pasa-
rako leku atsegina, baina batik bat,
euren burua prestatzeko, gizartera
ateratzeko elkartea zen: Hitzaldiak,
ikastaroak, eskolak, sukaldaritza,
herriko hainbat gauzatan lagundu
("Operación ladrillo" herriko ospi-
talerako laguntza, misioak, haur-
tzaindegia...)

Eibarko Ongintza Patronatua 1962an
izan zen poliomieltis broteak eta gai-
xotasun horren ondorioek ekarri
zuen arduragatik sortu zen. Beha-
rezkoa zen errehabilitazio zentroa
edukitzea. Jose Hernando Alkateak
Eibarko Patronatuaren Batzarra sor-
tu zuen 1964. urtean; eta zentroa
bera urte bereko urrian inauguratu
zen Bidebarrieta kalean. Batzar edo

en el año 1964; el centro se inauguró en octubre del mismo año en la calle Bidebarrieta. En la Junta estaban Mercedes Careaga y Peli Egaña, como miembros activos y destacados. En principio estaba destinado a menores, pero pronto se vio la necesidad de ampliar sus servicios para la población adulta, convirtiéndose también en un centro de rehabilitación para aquellos trabajadores que no disponían de dicha asistencia médica. En el año 1981 se abrió la nueva sede en el Paseo de Urkizu con Tere Gantxegi como directora, con cuatro fisioterapeutas, una enfermera y cinco auxiliares. Actualmente el centro sigue en el mismo lugar con tres fisioterapeutas, 3 auxiliares y una administrativa.



En sus inicios, el centro facilitaba la realización de diversos trámites a numerosos eibarreses que precisaban de estos servicios (pensiones de viudedad, de jubilación, invalidez...).

Junta hartan Mercedes Careaga eta Peli Egaña zeuden; batzarkide saiatuenak eta finenak eurak ziren. Hasiaran umeendako zegoen pentsatua, baina laster hasi zen pertsona helduendako zerbitzuak eskaintzen; horrela, era horretako laguntza me-



dikorik beste inondik jasotzerik ez zuten beharginendako errehabilitazio zentro bilakatu zen. 1981. urtean Urkizu pasealekuan zabaldu zuten Zentroaren egoitza berria -gaur egun han segitzen du- zuzendaritza Tere Gantxegiren eskuetan zuela. Lau fisioterapeutek, erizain batek eta bost laguntzailek ziharduten lanean. Gaur egun, Gantxegiren begiradapean, hiru fisioterapeuta, 3 laguntzaile eta administrari bat ari dira bertan beharrean.

Eibartar askok eta askok jasotzen dute zentroaren laguntza; sasoi batean baita bizitzaren hainbat unetan behar izaten ziren administrazio-

Por último, bajo su impulso y dirección, se crearon escuelas para niños sordomudos y retrasados y fue éste campo uno de los mayores logros de Mercedes Careaga: los Talleres Protegidos Cayetano Careaga, ideados para proporcionar trabajo a jóvenes discapacitados, facilitar



su acceso laboral y ofrecer retribución salarial a un sector de población, que, hasta ese momento, no había tenido acceso al mundo laboral. El primer taller se abrió en la calle Estación 7, en el taller de Cayetano Careaga, padre de Mercedes. Se inauguró el 3 de abril de 1973 con seis operarios. Mercedes Careaga era la jefa de taller y tenía como monitor a José Ángel Lizundia. El trabajo más importante, y difícil a la vez, consistía en buscar empresas que confiaran y suministraran trabajos que pudieran ser realizados por los jóvenes discapacitados. Los primeros talleres

tramiteak egiteko orduan ere (alarguntasun pentsioak, erretiroak, baliogabetasunak...)



Azkenik, Mercedes Careagaren lorpenik handiena: atzeratutako umeendako eta ume gormutuen-dako eskolak; Cayetano Careaga tailer babestuak. Tailer horiek, gazte atzeratuei lana edo biharra emateko sortu ziren, lanean jarri eta soldata bat izan zezaten, izan ere, ordura arte, sekula ez baitzuten izan lanean aritu eta dirua irabazteko modurik. Lehenengo tailerra Estaziño kalearen 7an zabaldu zen, Cayetano Careaga, Mercedesen aitaren tailerrean. 1973ko apirilaren 3an inauguratu zen sei langilerekin. Mercedes Careaga zen tailerreko buru; Jose Angel Lizundia zuen monitore. Lanik garrantzitsuena -eta aldi berean, zailena- gazte haiek egiteko moduko lana emango zuten enpresak

que se animaron a impulsar el proyecto de Careaga fueron GAC, Bascaran, Mendiguren y Zarraua, Servetta, Laster y Dej. En una de las pocas entrevistas concedidas por Mercedes Careaga (Revista Eibar) destacaba "el interés, la ilusión, el empeño y el buen hacer" de los trabajadores.

edo tailerrak bilatzea izaten zen. Careagaren proiektua aurrera eramaten lagundu zuten aurreneko tailerrak GAC, Bascaran, Mendiguren y Zarraua, Servetta, Laster eta Dej izan zen. Mercedes Careagak oso gutxitan egin zuen berba egunkarrietan, baina "Eibar" aldizkarian gai horren inguruan egin zioten elkarrizketa batean hauxe



En 1975 se inauguró un segundo taller ampliado en la calle Estación número 5, en el edificio llamado "Munikola" -antes fábrica de armas Hijos de A. Arizmendi. Los propietarios, a cambio de una renta simbólica de 100 pesetas mensuales, dejaron el edificio en manos de Mercedes Careaga atraídos por su proyecto. En dicho año fueron más de 20 los jóvenes que ya trabajaban bajo la dirección de Careaga, a la que se unen dos monitores más, Miren Mendicute y Miren Ormaetxea.

"behargin horien interesa eta lanerako gogo, egiten zuten ahalegina" azpimarratzen zuen.

1975ean, Estaziño kaleko 5ean inauguratu zen bigarren tailerra, aurrekoa baino handiagoa, "Munikola" izeneko eraikinean -lehen, Hijos de A. Arizmendi arma lantegia izandakoa. Jabeek, hilero 100 pezetako errenta merka bat jarri zioten eta eraikina Mercedes Careagaren esku utzi zuten proiektua deigarria iruditu zitzaielako.

Se hacían todo tipo de trabajos: Ejes para bisagras, tapones de depósitos de gasolina... La confianza de los empresarios ya es total y el número de empresas que requieren sus servicios va aumentando.

Basta con ver los datos de facturación del taller: el año de su inauguración, 1973, 106.248 pesetas; diez años más tarde, en el 83,

Urte hartan 20 baino gehiago ziren Careagaren zuzendaritzapean lanean ari ziren gazteak; beste monitore bi ere urte hartan hasi ziren lanean: Miren Mendicute eta Miren Ormaetxea. Lan-klase guztiak egiten ziren: Bisagrendako ardatzak, autoen erregai-ontzietarako tapoiak... Tailerdunek, ordurako, konfiantza osoa zuten han egiten zen lanarekin, eta



5.891.865. Pero aparte de la facturación, Careaga también acudía a otras fuentes de ingreso, por ejemplo, a los "Cuadernos" de la sociedad Goi Argi -50 cuadernos con 50 mujeres responsables de los mismos con objetivos económicos y sociales concretos que se apuntaban para cada año-, hojas en las que se iban recopilando los donativos de las familias eibarresas que luego se destinaban a diferentes proyectos sociales (ASPACE, Fun-

egunetik egunera gehitzen zihon beharra ematen zuten enpresa-kopurua.

Tailerraren fakturazio-datu hauek ikusita nahikoa da: Inauguratu zen urtean (1973), 106.248 pezeta; handik hamar urtera (1983an), 5.891.865 pezeta. Tailerra handitzen joan zen; urteek aurrera egin ahala erakundeek laguntzak ematen hasi ziren (Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Lan Ministeri-

dación San Andrés, Patronato Eibarrés, y, por supuesto, Talleres Cayetano Careaga). El taller se fue ampliando; con los años llegaron las ayudas institucionales (Diputación, Gobierno Vasco, Ministerio de Trabajo...) y se trasladó a Matxaria, lugar en el que hoy día desarrolla su labor.



Actualmente integrado en el Grupo GUREAK -desde el año 1991- el taller protegido fue uno de los proyectos más ambiciosos y de mayor envergadura entre todos los que inició y ejecutó Mercedes Careaga a lo largo de su vida. Un ejemplo de verdadera integración social.

Mercedes Careaga recibió el cariño y el merecido reconocimiento de Eibar en el año 1974 en un homena-

tza...), lekuz aldatu eta Matxariara eramán zuten. Gaur egun, han dago.

1991z geroztik GUREAK taldearen barruan dago. Mercedes Careagak bere bizitzan zehar egin zituen lan guztien artean, tailer hori izan da proiekturik garrantzizkoena eta sakonenetarikoa. Benetako gizarteratze-lanaren eredu.



Mercedes Careagak Eibarko herriaren esker ona eta merezia zuen omena jaso zuen 1974. urtean; udalak eta herriko elkarte guztiek antolatutako omenaldi hartan "grabatzaileen bola" entregatu zioten, herriaren hainbat alorretan nabarmentzen ziren ei-



je organizado por el Ayuntamiento y las sociedades populares en las que se le entregó la "bola de grabador", bola que se entregaba anualmente a los eibarreses que destacaban en diferentes ámbitos de la vida local.

Murió el 26 de febrero de 1997.

Begoña Azpiri,
Secretaria Comisión Ego Ibarra

Fuentes:

- . Archivo Municipal-Udal Artxiboa
- . Revista Eibar
- . Grupo Gureak (Internet)
- . *Mercedes Kareaga*. Eta kitto.
- . Sabino Arana Fundazioa



bartarrei urtero ematen zitzaien saria.

1997ko otsailaren 26an hil zen.

Begoña Azpiri,
Ego Ibarra batzordearen idazkaria


Iturriak:

- . Udal artxiboa
- . Eibar aldizkaria
- . Gureak taldea (Internet)
- . *Mercedes Kareaga* Eta kitto!
- . Sabino Arana Fundazioa



© sabino arana fundazioa

Frontón Astelena de Eibar, 19 de marzo de 1933 durante la celebración de un gran mitin nacionalista. Por la izq. Mercedes Kareaga, José Antonio Agirre, Polixene Trabudua, Julio Jauregi, Juanita Aranberri y Eduardo Alberdi (foto Oxanguren). Eduardo Alberdi era el expresidente de Eibarko Uri Buru Batzar. Los oradores del mitin fueron: Agirre, Polixene y Jauregi.



© sabino arana fundazioa

DAR SIN PEDIR NADA A CAMBIO EZEREN TRUKE EMAN

Este año, la Sociedad Filatélica Arrate quiere dedicar un homenaje a Mercedes Careaga, la "Teresa de Calcuta eibarresa", en el centenario de su nacimiento.

Leyendo su biografía he encontrado cierto paralelismo entre ella y la primera mujer que ha aparecido en los sellos de correo españoles, no siendo de familia real : Concepción Arenal.



Urte honetan, "Arrate" Elkarte Filatelikoak Mercedes Careaga omen-du nahi du, "Kalkutako Teresa eibartarra" bere jaiotzaren ehunurteurrenean.

Careagaren biografia irakurtzerakoan nolabaiteko antzekotasuna bilatu diot Espainiako posta seiluetan errege-familiatik aparte azaldu zen lehenengo emakumearekin. Concepción Arenal

Mercedes Careagak 1936ko gerratea pairatu zuen; lehenik Asturiasera joan beharra izan zuen eta gero Frantziara; atxilotu eta Eibarrera itzultzera behartu zuten, gaztigu gisa, eskolak garbitzen jarrita. Ez zuten espetxeratu.




Mercedes Careaga sufrió la guerra civil de 1936 teniendo que emigrar primero a Asturias y luego a Francia, siendo detenida y obligada a regresar a Eibar para limpiar colegios a modo de castigo. No llegó a pisar la cárcel.



Trabajó en la posguerra preparando a las mujeres para el matrimonio, trayendo obras de teatro a la Parroquia de San Andrés y enseñando a las mujeres a seguir la misa en latín.

Gerra ostean emakumeak ezkontzarako prestatzen aritu zen, San Andrés parrokiara antzez lanak ekartzen eta emakumeei meza latinez jarraitzera erakusten.



Una de sus grandes preocupaciones fue el problema de la mujer a principios del siglo XX, dado que la sociedad seguía siendo muy machista, debido quizá a la industrialización tardía de Euskadi o quizá por las

Bere ardurarik handienetako bat, XX. mende hasierako emakumearen arzoa izan zen, gizartea gizonen eskuetan zegoelako, akaso Euskadi beranduegi industrialdu zelako edo behar bada hemengo ohitura zaha-

arraigadas costumbres tradicionalistas. Con la llegada de la Segunda República, llega la declaración del PNV: "Todas las mujeres podrán afiliarse a esta organización con los mismos derechos individuales que los hombres". Mercedes ofreció una veintena de charlas por todo Euskadi, reivindicando el papel de la mujer en la sociedad. En 1951, junto con Tere Gantxegi y Carmen Apellániz creó la primera sociedad en todo el Estado destinada únicamente a mujeres, en donde además de ser un lugar de entretenimiento, se daban clases de convivencia y cocina.

rrak oso sustraituak zeudelako. Bigarren Errepublika iritsi zenean, EAJren deklarazioa iritsi zen: "Emakume guztiak izan daitezke erakunde honetako kide gizonezkoek dituzten norbanako eskubide berberekin." Mercedesek Euskadin zehar hogeit bat hitzaldi eskaini zituen, emakumeak gizartean zuen egitekoa aldarrikatuz. 1951ean, Tere Gantxegirekin eta Carmen Apellanizekin, emakumeendakoa bakarrik zen estatutu osoko lehen elkarteak sortu zuen; denbora-pasarako lekua izateaz gain, sukaldaritza eta elkarbizitza klaseak ere ematen ziren.



Concepción nació en Ferrol en 1820, casi un siglo antes que Mercedes.

Su padre, don Angel Arenal, se hizo militar a raíz de la Guerra de la Independencia, sufriendo muchas veces prisión por su ideología liberal y por estar en contra del régimen absolutista de Fernando VII.

Concepción Ferrolen jaio zen, 1820an, Mercedes baino ia ehun urte lehenago.

Aita, Angel Arenal, militar egin zen Independentziako Gerratearen ondorioz; askotan espetxeratu zuten liberala izateagatik eta Fernando VII-ren erregimen absolutistaren kontra egoteagatik.

Tras la muerte del padre, la madre de Concepción se trasladó a Madrid con sus dos hijas. En 1842 Concepción se vistió de hombre para poder asistir a la Universidad Complutense de Madrid y recibir clases en la Facultad de Derecho.

Aita hil ondoren, Concepcionez amak alaba biak hartu eta Madrileran joan zen. 1842an, Concepción gizonetako jantziak erabiltzen hasi zen Madrileko Unibertsitate Konplutentsean sartu eta Zuzenbide Fakultatean klaseak hartu ahal izateko.



En la Universidad conoció a Fernando García Carrasco, abogado, periodista y liberal, hombre capaz de entender y aceptar la actitud combativa de Concepción ante las injusticias de la época.

Contrajeron matrimonio en 1848, Concepción con veintiocho años y Fernando con cuarenta.

La pareja tuvo varios hijos, pero todos fallecieron a temprana edad, no quedando más que uno, Fernando García Arenal, quien en 1875 se hizo Ingeniero de Caminos Canales y Puertos, carrera considerada progresista entonces.


Unibertsitatean, Fernando García Carrasco ezagutu zuen, abokatu, kazetaria eta liberala, Concepcionez saso hartako injustizien aurrean erakusten zuen borrokarako grina ulerzeko eta onartzeko gai zen gizona.

1848an ezkondu ziren, Concepcionez hogeita zortzi urte zituen; Fernandok berrogei.

Bikoteak hainbat seme-alaba izan zituen, baina denak hil ziren umetan; seme bakarra geratu zitzaion, Fernando García Arrenal, 1875ean Bide, Portu eta Ubide Ingeniari egin zena, orduan sasoiaren aurrerakoitzat hartuta zegoen karrera.

Durante su matrimonio, los esposos se ganaron la vida escribiendo para el periódico "La Iberia".

Senar-emazteek, "La Iberia" egunkarirako idazten irabazten zuten eguneroko ogia.



En 1857 murió Fernando García y Concepción Arenal decidió trasladarse primero a Oviedo y posteriormente a Potes, capital del Valle de Liébana.

Uno de los aspectos más progresistas de Concepción Arenal es considerar a la mujer como ser humano marginado a quien hay que ayudar, estimular y respetar, no con galanterías ni con modales encantadores y protectores, sino educándola en la dignidad de su propia condición.

Al escribir, elige el género epistolar y el folletín, los medios más accesibles a los lectores.

1857an hil zen Fernando García; senarra hil ondoren Concepción Arenal Oviedora joan zen, gero, Liebana bailarako hiriburura, Potesera.

Concepción Arenalen ikuspegirik aurrerakoiena haxe izan zen: emakumea baztertutako gizakitzat hartu behar da, emakumeari lagundu egin behar zaio, gogoia piztu eta errespetatu, baina ez galania bidez eta manera galaiak eta babesleak erabilita, emakume izate horren duintasunean hezita baizik.

Idazteko orduan, epistola generoa eta folletoia aukeratu zituen: irakurleendako eskuragarrienak.

Sus obras: "La mujer del porvenir", "La educación de la mujer", "El estado actual de la mujer en España", "El trabajo de las mujeres", "La mujer de su casa" y "El servicio doméstico".



Concepción Arenal padeció la guerra carlista, conociendo el horror de las cárceles de mujeres y hombres, la miseria de hospicios y manicomios y acompañando a las tropas para atender a los heridos de los dos bandos. Dirigió el adecentamiento del hospital de campaña que se montó para atender a heridos y moribundos. Por su gran actividad fue nombrada en 1863 en La Coruña visitadora de prisiones de mujeres.

Concepción Arenal fue nombrada en 1868 Inspectora de Casas de Corrección de Mujeres, cargo que ocupó hasta 1873. En 1871 fue nombrada Secretaria General de la Cruz Roja

También fue miembro de la Junta di-

Bere lanak: "La mujer del porvenir", "La educación de la mujer", "El estado actual de la mujer en España", "El trabajo de las mujeres", "La mujer de su casa" y "El servicio doméstico".

Concepcion Arenalek karlistaldia pairatu zuen; emakumeen eta gizonezkoen espetxeetako egoera latza ezagutu zuen; umezurtz-etxeen eta zoro-etxeen miseria; tropei laguntzen zien bando bietako zaurituak sendatzen laguntzeko. Hilzorian zeudenentzat eta zaurituentzat frentean jartzen ziren ospitaleen txukunketa-lana zuzendu zuen. Bere lanagatik 1863. urtean A Coruña emakumeendako espetxeen bisitari izendatu zuten.

1868an, Emakumeak Zuzentzeko Etxeen Ikuskari izendatu zuten; 1873. urtera arte egon zen kargu horretan. 1871ean Gurutze Gorriaren Idazkari Nagusi izendatu zuten.

Madrilgo Emakumeen Ateneoko zuzendaritza-batzordekide izan zen. 1890aren hasieran, Vigora bizitzera joateko erabakia hartu zuen; osasunez makal zebilen ordurako. 1893ko





rectiva del Ateneo de Señoras, de Madrid. A comienzos de 1890 Concepción decidió cambiar su residencia a Vigo, donde se agravaron sus dolencias, falleciendo la mañana del 4 de febrero de 1893. Su entierro fue uno de los más populosos de Vigo.

Ambas destacan como grandes luchadoras por el progreso social y a favor de la mujer, siendo muy adelantadas a su tiempo.

otsailaren 4an hil zen. Hiletak Vigon sekula egin diren hiletarik jendetsuenak izan ziren.

Mercedes eta Concepción, biak nabarmendu ziren aurrerapen sozialaren eta emakumeen alde egiten; bizi izan ziren sasoi hartan oso emakume aurreratuak ziren.



Maria Begoña Imaz,

La Asociación Filatélica Arrate quiere agradecer la colaboración de todos y cuantos han participado con su apoyo.

LAGUNTZAILEAK COLABORAN

BAR TXOKO
CAJA LABORAL POPULAR
EROSKI
FILATELIA UAMUNO (BILBAO)
EL CORTE INGLÉS
EXCLUSIVAS GORNIBA
ARCHIVOS DEL AYUNTAMIENTO DE EIBAR
EGO IBARRA BATZORDEA
EL CORREO VASCO
DIARIO VASCO
ARRATE IRRATIA

HEDABIDEAK LOS MEDIOS INFORMATIVOS II

ETA KITTO
REVISTA EIBAR
RADIO POPULAR DE LOYOLA
RADIO EIBAR (CADENA SER)
KTB (EIBAR TELEBISTA)

LAGUNTZAILE BEREZIAK PATROCINADORES



ANTOLATZAILEA ORGANIZA

